

# A1 MAILA

---

## IRAKURMENA.

### Anna Klimova.

#### **0. Anna Klimova, euskara ikasten ari den errusiarra.**

Anna Klimova errusiarra da, baina Alemanian bizi da, Frankfurt. Hizkuntzalaritza konparatzailea ikastean ari da han eta Moskun zegoela izan zuen euskara eta Euskal Herriaren berri.

Ez daki ez gaztelaniaz ez frantsesez, euskaraz ongi moldatzen bada ere. Uztailean Euskal Herrira etorriko da, Zornotzako Barnetegira, euskara sakontzera.

#### **1. Nongoa zara eta non bizi zara orain?**

Errusiakoa naiz, nire gurasoak Vladimirren bizi dira. Moskuko Unibertsitatean ikasi dut. Orain Frankfurt bizi naiz eta Goethe Unibertsitatean kaukasiar hizkuntzak ikasten ari naiz, euskaraz gain.

#### **2. Nolakoa da Vladimir, zure jaioterria?**

Vladimir ez da oso handia, Errusiako hiria izateko. Frankfurt bezain handia da. Vladimir oso herri zaharra eta polita da, Errusia zaharraren hiriburua izandakoa. Vladimirren leku ikusgarri asko dago. Antzinako eliza ortodoxo asko. Baita bi unibertsitate ere.

#### **3. Zer dela eta etorri zara Frankfurtera?**

Gehiago ikasi nahi dudalako. Lizentziatura Moskuko Unibertsitatean egin dut. Eta orain hizkuntzalaritza konparatzailea ikasten ari naiz hemen.

Georgiera, georgiera zaharra, udiera, eta Kaukasoko beste hizkuntza batzuk ikasten ari naiz. Lana ere egiten dut, ikasketak ordaindu ahal izateko.

#### **4. Zer da euskaldunengan gehien maite duzun gauza( sukaldaritzaz gain)?**

Lazkaon oso ondo jaten da. Egunero janari ona eta pila bat. Loditu egin naiz. Bestela, kaleko giroa maite dut Euskal Herrian, herriko jaiak, azokak... Euskaldunik ez dut gertutik ezagutzen eta ezin dut esan nolakoak diren.

#### **5. Nolakoa izan da zure lehenengo eguna Euskal Herrian?**

Gogorra. Alemaniatik bidaia luzea da eta oso nekatuta nago. Geltoki batetik bestera ibili naiz. Hotza pasatu dut.

#### **6. Etxepare Institutuak diru-laguntza eman dizu aurten Zornotzako barnetegira joateko. Pozik zaude?**

Oso pozik. Euskal Herria asko gustatzen zait. Eta hizkuntza berri bat ikasteko aukera ona da, lan hobea aurkitu ahal dudalako.

#### **7. Euskara ikasten ari diren errusiar gehiago ezagutzen duzu?**

Bai, Natalia Erseyeva, adibidez. Nirekin Lazkaon egon da. Georgiar-errusiarra da neska hau eta Erromanistika ikasten du Moskun.

---

## Lotu galderak eta erantzunak.

- A. Zer dela eta etorri zara Frankfurtera?
- B. Nongoa zara eta non bizi zara orain?
- C. Nolakoa izan da zure lehenengo eguna Euskal Herrian?
- D. Nolakoa da Vladimir, zure jaioterra?
- E. Zein da euskaldunengan gehien maite duzun gauza ( sukaldaritzaz aparte)?
- F. Euskara ikasten ari diren errusiar gehiago ezagutzen duzu?
- G. Etxepare Institutuak diru-laguntza eman dizu aurten Zornotzako barnetegira joateko. Pozik zaude?